



© KONTZERTUA

# Beethovenen preludioa



"BEETHOVENEN PIANO ETA ORKESTRARAKO KONTZERTUAK"  
JUANJO MENA ETA JAVIER PERIANESEN ESKUTIK.



## LONDON PHILHARMONIC ORCHESTRA

ZUZENDARIA: JUANJO MENA  
BAKARLARIA: JAVIER PERIANES  
(PIANO-JOTZAILEA)

NOIZ: abuztuaren 30 eta 31n.

NON: Kursaal Auditorioan.

### MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**D**atorren urtean Beethovenen jaio-tzaren 250. urteurrena ospatuko da, eta beraz, errespetu osoz esanda, kokoteraino bukatuko dugu Bonneko maisuaz. Ez da urtea iritsi eta Donostiako Musika Hamabostaldia efemeride hone-taz gogoratu da eta konpositorearen piano eta orkestrarako kontzertuen integrala eskaini digu. Halaxe, gosegarri gisa.

Platerkada honentzako osagarri ezin hobeak izan genituen: London Philharmonic Orchestra doi-doia, gure Juanjo Mena zuzendaria, oso kanporakoa, beti bezala, eta bakarlari fina, Javier Perianes pianista huelvarra hain zuzen ere. Gauzak horrela, bi kontzertu onak izan genituen, perfektuak esango nuke.

London Philharmonic taldearen ezaugarri pare bat azpimarratu behar-ko banitu, soinuaren gardentasuna eta

esanekotasuna aipatuko nituzke. Soka ederra du orkestra honek, haize garbia eta musikari pasionatuak. Horrez gain, zintzotasun osoz jarraitzen zituzten Menaren agindu guztiak; zuzendariaren keinu edo ñabardura bakoitza primeran azaltzen zuten.

Baina benetako protagonista Perianes piano-jolea izan zen. Txundituta utzi zituen entzule guztiak bere fintasunarekin. Oso musikari errefinatua da, soinu zinez polita ateratzen du pianotik eta *pianissimi* ederrak ateratzen ditu instrumentutik. Aitzakiaren bat aipatzekotan, agian horixe bera izango litzateke, gehiegi erabiltzen duela *pianissima*. Soinu gehiago beharko luke une batzuetan eta piano eta orkestrarako kontzertu handia dena ganbera musika pieza bat bihurtzen du.

Bi saiotan banatu zituzten bost kontzertuak. Lehenengo saioan 2., 3. eta 4. kontzertuak jo zituzten. Dudarik gabe, laugarrena da kontzertu ederrena, eta pieza honetan zabaldu zuen Perianesek bere irudimen musikala. Elkarriketa dotoreak egin zituen orkestrarekin, *Andante con moto* bigarren mugimendua bikaina egin zuen eta adorez aritu zen *Rondo vivace* azkeneko zatian.

Bigarren egunean muturreko kontzertuak interpretatu zituen. Alde batetik, hain klasiko eta gardena den 1. Kontzertua, do minorrekoa, garbi-garbia, eta, bestetik, *Emperador* izeneko 5. Kontzertua, erromantikoena, birtuosistikoena eta adoretuena. Interpretazio ikusgarri eta karakterekoa egin zuen Perianesek, bere ukitu delikatu eta gardena utzi gabe. Publikoa txoratuta geratu zen. ●